

Aretxabaleta,
1993ko otsailak 25

Aretxagazeta


BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Egun hotza,
giro beroa

• Afizioak: Jose
Mari Sanchez

• Ikastolaren
Batzar Nagusia

• Kirolak: Pedro
Balenziaga



" Gu mugitu
gaituen
bakarra
EUSKARA
izanda".

Euskara gure motorra

Atxabaltarran aldizkari honek jadanik lehen urteurrena bete berri du bere fase honetan. Esan beharrik ere ez dago hasiera guztiak beti gogorrek eta aldapatsuak izaten direla, baina Udalaren laguntza izan ezik, herritarrona - zuona, hain zuzen- ere izan dugu, eta korapilotsua izan zitekeena errazten joan zaigu egin ahala.

Beharbada akats eta oker ugari somatu dituzu urte honetan, baina honelako proiektu bat -behar den moduan- gauzatu eta finkotu arte, urratsak poliki eman beharra daude.

Gure aldetik egin dezakegun balorazioa, dena den, positiboa da oso, jakin ondo dakigun arren guztion nahiak eta helburuak bete ez dituela **Aretxagazeta** honek. Hainbatetan, berriz, agian

norbaitek txarrean hartuko zituen guk idatzitakoak, baina jakin dezala gure asmoa ez dela sekula santan izan inor kaltetzea, ezta gutxiagorik ere iraintzea, baizik eta gu mugitu gaituen bakarra **EUSKARA** izan dela.

Ikusgarria da benetan gure hizkuntzak azken urteotan izan duen gorakada, baina era berean ukalezina da ez duela gizarzteak eskatzen duena eskaintzen, hainbat legeri so eginez gero behinik behin. Hor ditugu, loratze horren lekuko, euskararen aldeko jaiak eta kanpainak (kilometroak, Ibilaldia, Korrika, e.a.), euskarak irakaskuntzan izan duen sustapena -A eredia toki askotan desagertaraziz-, komunikabideek egiten duten lan gogorra -irratia, telebista eta prentsa ida-

tzia erabat euskaldunduz.

Euskara eta Herria sarritan hartu ditugu patroia eta eredutzat (oso aber-tzaleak omen gara), eta seguru asko biztanlegoak biziki maite dituela, baina gure arduragabekeriak, sentiberatasun-ezak ezin diote esku artean dugun arazo larriari erantzun baikorra eman. Esate baterako, nola da posible euskara menperatzen duten gurasoak bere seme-alabekin euskaraz jardutea eta beraien artean gazteleraz? edota errazago, zenbatetan hitzegiten da euskaraz lagunen artean guztiok (edo gehienok) dakiten arren? Garbi dago kasu honetan otsoa gure baitan dagoela.

Errurik ez duenak jaurti dezala lehen harria.

Inaxio Garro
Aretxagazetako
partaidea.

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduradunak: Goretzi Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** EguzkiGRAF. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Garizuman ezer berezirik egiten duzu?



Maritxu Gurrutxaga
(Etxekoandrea)

Bueno, batzutan, barau eta bijili egiten dut eta mezatara joaten naiz.




Jose Luis Arana
(Langilea)

Batzuetan, barau eta bijilia egiten dut, beste batzuetan ez. Normalean bai.



Manoli Gonzalez
(Etxekoandrea)

Bai, menua aldatzen dut, arrain gehiago jaten dugu. Ez dut beti bijilia egiten, batzuetan pasatu egiten zait. Mezatara ere joaten naiz.



Jose Anjel Arkauz
(Langilea)

Ez dut ezer berezirik egiten. Bizitza normala egiten dut.

KARTAK

Euskal Eskola Publiko Berria dela eta

Ez ! Aprobatu berria den eskola publikoaren legeak ez ditu Euskal eskola publiko berriak bete behariko ditua gutxieneko baldintzak zihurtatzen! Horrela izanik, ezin dugu lege horren menpe utzi Euskal Herriaren geroa. Lege hori onhartzen ez dugun neurrian, egin dutenei gure haserrea erakustea besterik ez al dago ?

Bestalde, badirudi, hainbeste aldarrikatzen ari garen ezetz horrek, gaur egungo ikastola eredu legitimizatzen duela Euskal eskola bakar bezala... eta ez da horrela. Gaur egun Euskal Herrian, NAHI TA NAHIEZ, bi eskola herrikoi dauzkagu, hots " herriko eskolak " eta " ikastolak ", eta lehen bait lehen bien arteko elkarlana eta konfiantzia bultzatu beha-

rrean gaude. Bakoitza, ba, gauden tokitik, hori lortzeko ahaleginetan murgildu beharko gara. Ala, gobernutik lege hori aldatuko dutenaren zai geldituko gara?

Atxalbaltan, gaur egun, bi eskola herrikoi horien adibidea aukeran dugu; Bai bata, bai besteak " herrikoitasun " eta " euskaldutasun " horiek neurri handi batean betetzen dutenak. Batak, behar bada alor batzutan, besteak baino hobeto... eta alderantziz.

Guk, " herriko eskola " irakasle garenok, badakigu legea kontra izanda ere, gurasoen ahalegina, Udaletxearen konprometua eta irakaslearen lana medio direnean lortu daitezke eskeintzak garrantzitsuak izaten direla; Atxalbaltan

begibistan daude.

Gehiago zehaztearren, Udal eskolaurreko esperientzia azalduko dugu, non, " eskolaurre publikoa " zena eta " ikastola " zena elkarlanean jarri ziren orain dela hamaika urte, nolabaiteko konfiantzia, erreala bihurtuz; gaur egun, Udal eskolaurreko irakasle % 100 euskalduna eta iraunkorra da; D eta murgiltze ereduetan ari da lanean. Herriko sektore, komunitate ezberdin guztiak integartzeko gai da; dohaina; eta momentu oro, heziketa eta irakaskuntza alorreko berrikuntza aztertuta eta bereganatzen ditu.

Ez da Atxalbaltan dugun adibide bakarra, Kurtzebarri " eskola publikoa " egoera berdinean aurkitzen da, irakasle % 99 euskalduna eta % 75 iraunkorra denaren salbuespenarekin.

Eta ez da Atxalbaltan salbuespen bakarra, ez; Udaletxea, gurasoak eta irakasleak konprometitu diren herri guztietan, berdin gertatu da.

Orain, " Eskola publikoaren legea txarra " denaren izenean, ezin ditugu suntsitu emandako urratsak.

Gauzatutako esperientzia hauek arriskuan jarriko duten erabakirik ez onartzen izan behar du, hementik aurrera Atxalbaltan erreindikazioa; Batez ere herrian, horri buruz zeresana eta zeregina dutenen aurrean, eta, nola ez! gobernuaren aurrean ixildu gabe!

Kurtzebarri eskolako irakasle talde bat



H.B.ren prentsaurrekoa

Otsailaren 12an, H.B talde politikoak emandako prentsaurrekoan, Udaletxean liberatu lanetan diharduen Aitor Antxiaren lana salatu du.

H.B.koen esanetan, orain dela urte t'erdi liberatu lanetarako izendatzea hanka sartze haundia izan da. Dena den, E.A.koekin ez dute arazorik " pertsona baten ekintzak, ez dira traba izan behar ".

Horrela, zinegotzi hori pertsonal mailako arduradun izateko kontratatzea proposatu zuten. Baina, H.B ren ustez hori ez da bete.

"- Ez dira lortu jarritako helburuak, Ez ditu bete pertsonal mailako ardurak. Ez da egin langileen lanpostuen zehaztapena eta dagokien balorazio manuala. Hori egiteko epea bukatzeaz zegoanean, kanpoko aholkularitza bati eskatu dio aurrekontua burutzeko.

- Udaletxeko langileen artean hainbat adis-

kidantza egoera desberdintzaileak ikusteko aukera izan dute.

- Lan ordu ugari " hobbi " pertsonaletarako erabiltzen ditu, beste tarte bat batzarretara joateko, beraietan ardura zuzenik hartu gabe.

-Hainbat zinegotziri, euren lanetan, trabak jartzten dizkie."

Bestalde, H.B.k dienez, " E. Akoek diotena gerta daiteke, agian zinegotziek ez dute behar den ordu kopurua erabiltzen. Baina desberdina da Udaleko liberatu ardurak betetzearren hilerio soldata bat jasotzea."

E.Ako ordezkariekin irtenbiderik lortu barik hainbat bilera izanda gero, egoera hori salatzearabaki dute.

"Ez gabilta bere dimisioa eskatzen, demokratikoki hautatua izan zelako, baina ez dugu onartzen liberatu lanetan jarraitzea."



Ikastolaren Batzar Nagusia

Udal Eskolaurrean otsailaren 12an, urteroko batzar nagusia izan zen. Bazkide askok parte hartu zuten bertan.

Lehenengo, 1991 - 92 ikasturtea eta egoera ekonomikoa aztertu ziren. Ondoren 1992 - 93rako plangintza azaldu zuten.

Gai horietaz aparte, Loramendi ikastola Euskal Eskola Publikoaren lege berriaren aurrean ematen dabilen pausoei buruzko informazioa eman zen. Orain arteko pausoak hauexek izan dira:

- Lehenengo ikastolako lehendakari ohiekien jarri ziren harremanetan, informazioa jasotzeko.

- Gero Hezkuntz Delegazioan izan zen bilera batean parte hartu zuten beste 10 ikastolekin batera.

Batzar horretan sare publikora pasatzea proposatu zioten. Bestela Eusko Jaurlaritzarekin

duten kontzertua kenduko zietela, esanez. Langileen aintzinkotasuna ez dute mantendu gura trasladioetan. Irakasleek aintzinkotasuna, kontzertua sinatu zen egunetik aurrera gordetzea eskatzen dute.

- Gipuzkoako Ikastolen Elkartera jo zuten, kontzertu horiek kentzea legezkoa zen jakiteko. Elkartekoek, ELA eta LAB sindikatuekin batera prest agertu ziren aintzinkotasunaren arazoa negoziatzeko.

- Hezibideko partaide direnez, bertakoekin ere berba egin zuten, arazo hori eztabaidatzeko.

Informazio guzti hori jakinarazi zitzaizen batzarrrera joan ziren denek.

Antza denez, Eskola Publikoari buruzko lege berria pil - pilean dago, eta jendearen interesa sortu du.

Aspaldian ez zen batzar horietara hainbeste jende joaten.



Jende asko antzerkietan

Kurtzebarri Eskolan, otsailaren 10, 11, 17 eta 18an izandako antzerki topaketetara jende asko hurreratu da. Bertan, bertsoak, antzerkiak eta dantzak ikusteko aukera izan da. Maila guztietako ikas-

leek hartu dute parte eta benetan aktore onak direla erakutsi digute.

Emanaldi hauek ikusgarriak izan dira, ea datorren urtean ere animatzen diren horrelako saioak antolatzen.



Aretxagazetaren Batzar Orokorra

Joan den zapatuan Aretxagazetaren Batzar Orokorra izan genuen udaletxeko pleno aretoan. Bertan 92ko urtearen memoria eta balantze ekonomikoa egin zen. Gero 93ko ekintzen eta aurrekontuaren aurkezpena. Aurten batzordeko 4 partaide be-

rriztatuko direla eta barrien aurkezpena egin zen.

Bukatzeko jende guztiak parte hartu zuen galdera eta eskariekin. Oso batzar interesgarria izan zen eta nahiko jende batu zen. Hauengandik ideia barriak ezagutzeko aukera izan genuen.

U.D.A. ren Batzar Berezia

Otsailak 13an izandako Batzar Berezian, Ibarra futbol-zelaiaren etorkizuna aztertu zen, erabaki desberdinak hartuz. Bertara nahiko bazkide joan ziren.

Futbol-zelaia Udalaren eskutan uztea erabaki zuten, Udalari baldintza bi hauek betetzeko eskatuaz:

- Ibarra ingurua, orain arte moduan, betirako kirol gunea izaten jarraitzea.

- Udala kirol gune horren mantenimentuaz arduratzea.

Bestalde, futbol zelaia barrizeko proiektua aztertu zen. Proiektu horretako punturik inportanteenak hauek izan daitezke: lehenengoko fasean, belar artifizialezko zelaia egitea proposatzen da, gaurkoa dagoen kokagunetik hegoalderuntz 50 m. mugituz.


Zelai mota horiek erabilera hobea dute, bai entrenatzeko eta bai jokatzeko ere. Ondoren, harmailak egin eta gune guztia osatzeko.

U.D.A. koek, berrikuntza horiekin aurtengo futbol denboraldiaren bukaeran hasi gura dute, datorren denboraldiaren hasieran belar artifizialezko zelaiari jokatzeko hasia. Baina ez dute inolako ziurtasunik. Euren ustetan, luze joan daiteke zelaiaren barrikuntza.

* Martxoaren 5ean, Beinke elkarteak antolatuta Uratzalde elkartearen, arratsaldeko 8 t'erdietan, kantu afaria izango da soinu-jole baten laguntzarekin. Jende kopurua mugatua izango da. Apuntetako epea martxoaren 2an itxiko da. Txartelak Beinke eta Gurea tabernan izango dira salgai.

* 1950. urtean eta 1951. urteko urtarrian jaiotakoek, otsailaren 27an urteroko kinto afaria izango dute Taberna-Berri jatetxean. Meza izango dute 7 t'erdietan. Izena emateko Taberna-Berri jatetxera jo ezazue.

* Martxoak 1ean Basotxo Elkarteak patroiaren eguna ospatuko dute. Ordu 1etan Monjetan meza izango dute eta ondoren bazkaria Taberna-Berri jatetxean. Bazkarira apuntatu gura dutenak Basotxoko bulegotatik pasa daitezke.



Akordeoi orkesta

Akordeoi orkestaren entsaioak hasi dira eta aurkezpena urte hau bukatu baino lehen egin gura dute. Orkesta honen zuzendaria Juan Jose Orobengoa da eta bere

eskolako ikasleekin osatu du orkesta.

Kurtzebarri eskolako aretoan entsaietan dute eta bazkide barrien bila dabilta.



Galartzako kanposantua

"Ni gaur eta zu biar, ona etorri bear", horixe dio Galartzako kanposantuko ateburuan dagoen inskripzioak, oso inskripzio kuriosoa.

Kanposantu horretan obrak hasi dira. Galartza auzoko kanposantua auzoko elizatik aparte dago, elizaren ipar-mendebalderuntz.

Kanposantuaren egoera nahiko ona da,

baina ez du behar den mantenimendua.

Galartzako biztanleek euren beharrak aztertuta gero, kanposantuko hamasei hilobi kentzea erabaki dute eta horien ordezturpeko nitxoak egitea. Horrela lurperatzerakoan lana samurtu egingo da.



Korueta eta Azatzako bidean obrak hasi dira. Lau hilabete iraungo dute. Kontuz Urkulura zoaztenok.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura Sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi, 13 - 1.A
Tfnoa: 79 71 55


ANGELINES

Autoserbitzua



Mitarte, 16
Tfnoa. 79 61 42

Atxabaltan badugu bere lana utzi eta larruzko pelotak egitera dedikatzen dena. Jose Mari Sanchezek 25 urte daroa larruzko pelotak egiten. Bere ustetan lan hori egiteko pazientzia handia eta afizioa eukitzea beharrezko da. Afizio horretaz gehiago jakiteko berarekin izan gara.



Esku pelotak egiten

• Nondik datorkizu afizio hau?

• Nire Arrasateko koinatua, Jesus Etxebarria, oso ona da lan honetan eta berarengandik ikasi nuen larruzko pelotak egiteko afizio hau.

• Zergatik hasi zinen lan honetan?

• Izakeraz inportsiboa naiz eta zenbait norma jarraitzea ez zitzaidan gustatzen, lana uztea erabaki nuen, beste lan honetan hasteko.

• Gatxa da pelotak egitea?

• Ez, ez da gatxa. Hasieran lan guztietan moduan apur bat gogorra egiten da, baina gero gustoa hartzen zaio. Hori bai, denbora asko eta dedikazio handia eskatzen du.

• Larruzko pelotak egiteak badauka sekreturik?

• Bueno, nik uste dut pelotak ondo egiteko material ona izan behar dugula.

Nik egiten ditudanak, toke berezia dute, gus-tora eta mimo handiz egiten ditudalako. Hau igarten da, jendeari asko gustatzen zaiolako.

• Pelotak egiteko zein pauso jarraitzen dituzu?

• Egurrezko pelotaxo batekin hasten naiz. Ezpela izeneko zuhaitzarena da dagoen egurrik onena, baina orain dendetan saltzen dituzten plastikozko pelotatxoak ere erabiltzen dira.

Gero kristalezko plaka batean latex likidoa

ipini, eta hau lehortzen denean tira batzuk egiten dira. Tira hauek egurrezko pelotatxoaren gainean batzen dira. Horren ostean artile naturalez batzen da berriro.

Gero algodoiaz jarten da hilbana eta bukatzeko, ahuntzaren larruaz forratzen da dena.

Orain, bakarrik, profesionalentzat egiten ditut pelotak eta horien pisuak 102 gramutik - 107 gramura bitartekoa izan behar du.

• Orduan, zuk, bakarrik profesionalei saltzen dizkiezu pelotak?

• Ez, nik partikularrei ere saltzen dizkiet. gertatzen dena da, jendeak garestiegiak direla uste

duela. Baina kontutan izan behar da pelota on bat egiteko hiru ordu gutxienez behar da.

Normalean, nahiz eta garestiak iruditu, materialen prezioa kontutan hartuta, gutxi da irabazten dena.

Gainera Eusko Jaur-laritzak ez du laguntzarik ematen eta oso zaila da ataraten den diruarekin bizitzea.

Gehien ordaindu zidana, Retegi I izan zen. Honek pelota bakoitzeko 4.000 pezeta ordaintzen zidan.

• Zure ustez zein da lan honetan onena?

• Nik ezagutzen dudana bakarria Cipri Sestaokoa da. Beti izan da puntan egon dena, baina urteak aurrera doaz eta eurekin trebetasuna ere galduaz doa.

• Badago zure etxean ohitura hau jarraitu gura duen inor?

• Ez, nire etxean hasi nintzen egunetik, esaten zidaten uzteko arazo asko ematen zidalako.

Gainera, egiten dudana lanak ez du sari eta satisfakzio handirik ematen.

Esan dezakedan gauza bakarria, nik hasieratik amaierara disfrutatzen dudala.

Egia esanda, gustatzen zaidana egiten dut eta hori oso inportantea da.



Lehenengo saria: Duracell pilak. Goiz alderarte ez zitzaizkien pilak gastatu. Saria eta mozorroa Joni eskaini zioten.



Bigarren saria: Pitufoak. Pitufilandiatik zuzenean. Gaur egungo pitufoek asko jaten dute.

Giro beroa nagusi

Domekan aterri hasi genuen eguna, baina orduak joan ahala aspaldian ikusi gabeko euria izan genuen lagun. Eguerdi aldera hasi zen jende mugimendua, jende asko ikusten zen mozorrotuta. Mota guztietako kukumarroak ikusi genituen. Ohiturari jarraituz, ordubatetan, herriko plazatik herriko dantzariak Txino dantza dantzatzuz urten zuten, kalean gora eta behera ibiliz.

Talde askok kale eskinetan euren saioak eskaini zituzten eta barre ugari egiteko aukera izan genuen. Eguerdi alderarte jendea euren jantzi dotoreak erakusten ibili zen, bazkaltzera joan arte.

Arratsaldean, eguraldia hotzitu arren, giroak bero-bero jarraitzen zuen. Kanpoko jendea ere

gerturatu zen, larregi behar bada. Zazpitan Santageda mutilek dantza egin zuten eta ondoren aurtengo haratuzteetako sariak banatu ziren.

Hamasei urtetik gorakoen artean, hauexek izan ziren sarituak:

- Lehenengo saria: Duracell pilak.

- Bigarren saria: Pitufoak.

Hamasei urtetik beherakoen artean:

- Lehenengo saria: militarrek.

- Bigarren saria: Kukuxklan.

Baina ez zen horrekin eguna bukatu, jaiak goiz alderarte iraun zuen. Tabernetan ez zegoen sartzerik eta txarangaren atzetik ere jendea oso animatuta ibili zen. Asteleheneko bixamona pasatuta gero, martizenean, berriro giro

Eguraldia hotzitu arren, giroak bero-bero jarraitu zuen.

polita izan genuen. Arratsaldean txarangaren atzetik umeak eta herriko komertzioetako jendea ikusten zen. Gabean, aurtengo haratuzteei bukaera emateko Txino erre. Komitiba Mitarte kaletik plazaraino txarangaren laguntzarekin, doinu tristeak joaz, joan zen.



Gazteen artean, irabazleak: militarrek. Eta gainera intsumisioa eskatzen.



Atxabaltako Argiñano, perejil eta guzti.



Ume haundi samarrak, dodotisekin ibiltzeko. Biberrietan ez ei zeramaten esnea. Ardoari esker egin ote dira hain haundiak?



Zerbitzukoek ere ez zuten lanik egin.



Alde guztietatik indioak, non sartu hintzen Colon?



Aurtengo ligerik espektakularrena.

Jose Angel Unanue Apotza - Etxebarri baserrikoa da. Marianista da eta jende askok Almenen pasatu zituen urteengatik ezagutzen du. Almenen hainbat urte egin zituen irakasle, baina 1983ko abuztuan Kolonbiarantz joan zen.

Azkeneko Gabonetan hemen izan da eta guregana ekarri dugu, bere bizimoduari buruz zerbait gehiago jakin guran.



Jose Angel Unanue, Kolonbian misiolari

• Zergatik joan zinen Kolonbiara?

• Almenen lanean nenbilenean, Kolonbian lagunak nituen. Beti harantz joateko esaten zebiltzan eta halakobatean bertara joatea erabaki nuen. Gainera, betidanik izan dut misiolari lan egiteko gogoa, eta han lan hori egin dut.

• Kolonbian zein lekutan egon zara?

• Bogotan 6 urte egin ditut eta gero Kolonbia barruko mendialdean ere egon naiz. Hemen epe motz batez bakarrik, gaixotu egin nintzelako. Orain, Girardoten, beste leku batean nago.

Leku horretan oso gustora nago eta jendea

ere atsegina da.

• Zein izan zen zure lehenengo inpresioa?

• Hasieran arraroa iruditu zitzaidan. Oso desberdina, gero poliki-poliki giroan sartu nintzen.

Adibidez, lehenengo egunean, aireportutik Bogota erdira joateko, autopistatik gindoazen eta bapatean, kotxeak autopistan alde batetik bestera pasetan ziren. Edozein modutan gidatzen dute han.

Bestalde, bizimodua eta klima ere zeharo desberdinak dira.

• Zelakoa da Kolonbia?

• Desberdintasun handiko herria da. Alde

batetik, aberatsak daude eta bestetik, pobreak. Ez dago erdi mailakorik. Aberats gutxi dago. Gainera, indiarren arazoa gehituz doa.

Bestetik, ekonomikoki, errekurtsu naturalak baditu: meatzeak, petrolioa e.a. Baina ez dira ondo erabiltzen.

Horri droga kontuak eta bertako biolentzia gehitu behar zaizkio.

• Zer da han egiten duzuna?

• Eskolan irakasten dut. Han ez da hemengo moduan, gela bakoitzean ikasle asko daude, normalean 40 ikasle baino gehiago, gutxiago izatea oso arraroa da. Kolonbian ere hemen, Alme-

nen egiten nuen gauza bera egiten jarraitzen dut.

• Ze alde dago hango eta hemengo jendearen artean?

• Nortasun desberdina daukate. Hangoak alaiak dira eta mundua beste filosofia batekin hartzen dute. Egunerokoa pentsatzen dute eta ez etorkizunean, hemengo moduan. Goizean urtengo dute, egun horretarako behar dutena bilatzeko.

• Kanpoan egon zaren bitartean Atxalbaltan aldaketa handiak ikusi dituzu?

• Bai, maila ekonomikoan, industrialdeak sortu dira. Herria dotoreago dago, atxalabarrak kanpoko arazoekin sensibilizazio handiagoa dute. Euskadiko arazoak ezezik, mundu mailakoak ere sentitzen gabilta.


• Zeure burua atxalbaltartzat dauka zu?

• Bai, hori ez da galdetu behar. Hau beti daukat buruan. Hasieran gehiago gogoratzen naiz, baina beti dago buruan.

• Noiz arte espero duzu Kolonbian egotea?

• Oraingoz 3 urterako noa, gero berriro bueltatuko naiz, 3 urte behin etorten naiz eta. Ez dakit aurrerago zer egingo dudan.

Pedro Balenziagak, 5 urte daroa, kiroldegiko igeriketa monitore lanetan. Igeriketan zale-tua da eta ikastaroak ematen ditu, ikaste-txeetako haurrei eta helduei. Gustora dabilan horretan, nahiz eta orain denbora libre asko ez euki. Berarekin izan gara bere zaletasuna eta aldi berean bere lana dena ezagutzeko asmoz.



Pedro Balenziaga, igerian irakasten

• **Zela hasi zinen igeriketa ikastaroak ematen?**

• Igeriketa betidanik gustatu izan zait. Eibarren igeriketa monitore ikastaroa egin nuen eta kiroldegi hau zabaldu zenean, hemen hasi nintzen.

• **Edade desberdinetako jendei zuzendutako ikastaroak ematen dituzu?**

• Bai, hasieran Kurtzebarri eta Almen ikaste-txeekin hasi nintzen. Orain, Udal Eskolaurrea, Santa Rita, Luis Ezeiza eta Armaixoko San Martin ikastolakoak ere etorten dira. Helduagoak Almen eta Eskola Profesionaletik. Gainera, gazteei eta helduei zuzendutako ikastaroak ematen ditut.

• **Igeriketa estilo desberdinak ikasten dituzte?**

• Bai, 3 estilo desber-

din. 3., 4. eta 5. mailetan kroll, 6. mailan atzeruzkoa eta 7. eta 8. mailetan "braza".

• **Jende askok har-tzen du parte ikastaroetan?**

• Lehenengo urteetan "boom" a izan zen, orain jendeak ikasi du eta ez da horrenbeste ibiltzen.

• **Zenbat denbora behar da igerian ikaste-ko?**

• Ikastaroek 20 ordu irauten dute. Batzuk samur ikasten dute, beste batzuk 60 - 80 ordu behar izaten dituzte.

• **Norbaitek beldurra izan ezkerro, zer?**

• Berarekin berba egiten dut animatuz eta bas-toiarekin bere gainean ibiltzen naiz, moldatu arte.

• **Orain, ze asmo du-zu?**

• Proiektu bat egiten nabil, uretako gimnasia

ikastaro bat eman guran. Beste aukera bat igeriketa eta gimnasia batera egiteko. Hemendik bi hilebetetara, jendeak izena ematen badu, hasiko da.

• **Profesional mailan hasteko asmorik, bai?**

• Ez, behin igeriketa klub bat sortzeko proposamena jaso nuen, baina ez dut astirik.

• **Atxabaltarako nahikoa da dagoen igerilekua?**

• Bai, jendearendako lekua badago. Niretako, barrukoa nahiko da. Kanpokoa, urtean zehar, egun batzuetan besterik ezin daiteke erabili eta.


• **Badaukazu anek-dotarik?**

• Behin, denak isilik zeudela, zarata bat entzun nuen. Konturatu nintzen, mutiko batek haginekin ataraten zuela zarata, urduri zegoelako.

* UDAko neska taldeak, astelehenean, isil-isilik, aurpegi luzeekin Berara joan ziren. Bertan 3-0 emaitzaz galdu zuten, Bortziriak taldearen aurka.

* Errejonalean, Oartzunen aurkako partidua banako emaitzaz bukatu zen. Atxabaltarren gola azkenengo minutuan sartu zuten.

* Preferentean UDak UPVren kontra galdu zuen, 2-1 emaitzaz.



Otaloratarren kapela

Azatzako San Juan elizaren barruan gaude. Hemen, ezkerretara, Otalora etxeok XVI. mendean eraikitako kapela dugu. Baina gaur, ez gara honen ezaugarri artistikoei buruz arituko. Gaur, kapelako zoluaren azpian, harlosa haundi baten azpian dagoen pertsonaren baten historia aztertuko dugu.

Gure pertsonaiak, Sancho Lopez de Otalora, Otalora eta Galarza etxeetako odola zuen, Leintz Bailarako etxe nagusi horien artean izandako hitzarmenaren emaitza zen eta. Ertaroan, elkarren artean izandako liskarrak ahaz-

tu ondoren, Ahaide Nagusi horiek ondo ulertu zuten zetorren garaia ezpata-gizonak baino lege-gizonak behar izango zituela. Beraz, etxe handi horietako ertaroko zaldunak lizentziatu bihurtuko dira aro moderno hartan.

Eta karrera horretan ondo kokatuta dugu Sancho Lopez de Otalora: Salamanka-ra zuzenbide ikasketak burutu ondoren, Sebilla-ra abiatu zen, hango epaile lanpostua lortu zuen eta. Ez zuen denbora asko galdu gure pertsonaiak. 32 urte zituela, 1530. urtean hain zuzen, Catalina Ximenez de

Bohorquez-ekinezkondu zen. Bere emazteak ezkontzara eraman zuen dotea aztertuz, leintzarrak nora zihoan ondo zekiela esan genezake. Hona hemen Catalinak Sanchori utzitako ondasun zerrenda: Utrera eta Sebilla-n zenbait etxe, 85 behi, 85 idi, txekorrek, txahalak, 130 txerrieme, 56 txerri, 1.200 ardi, 750 arkume, 14 behor, 300 ahari, 10 pottoka, eta 40 esklabu.

Diru arazoak konpondu ondoren, politikaren bidean aritu zen Sancho. Sebilla-n burututako lana erregearen gustokoa izan zen eta Carlos V.ak bere Erret

Kontseiluan sartu zuen.

Gaztelako hiri hartan hogeii urte eman ondoren, Otalorako etxe nagusira itzultzea erabaki zuen Sanchok. Mondragoeko historiagile nagusi zen Esteban de Gari-baik dioenez, elizako eta sainduen liburuak irakurtzen irauten zituen bere azkeneko urteak. Baina bere ondasun zerrendan, elizako liburuekin batera, Erret Kontseiluko eta Inkisizio Kontseiluetako agiriak aurkitzen dira. Gure pertsonaiak ondo zekien, jakin ere, zeruko eta mundu honetako arazok, elkarrekin lotura estuak zituztela.

Aldaketak etxean



J.J. Aretxaga

Aldaketak egon dira Aretxagazeta etxe santu honetan. Zuzendaritza Batzordeko erdia aldatu da. Bakea eman dute **Jabier Markos, Dabid Agirre, Inaxio Garro** eta **Iñaki Urretak**. Oraingoaz, horien ordeaz beste hiru fitxaje datoz gerra ematera: **Mirian Txintxurreta, Iñigo San Juan** eta **Rosa Mari Uriarte**. Hiru neska eta lau mutil gelditu dira aldizkariko batzordean. Ea igarten den. Aldaketekin hasi naizenez, aurreko alean herriko soziedadeetako lehendakari aldaketen barri eman nuen. Baina Uratz-Aldekoa falta zen. Aste honetan jakin dugunez **Andoni Antxia** izango da lehendakari barria.

Aldaketa izan duen beste elkarte bat Beinke izan da. Aretxabaletako euskalduntzearen gidari den elkarte honek egun erdiko langile barria ekarri du, badago zerbaiten beharra eta. **Jon Iñaki Izarzelai**a arrasatearra izango da lan hau aurrera eramango duena. Euskararen gaia aitatu dudanez, euskararekin zerikusia duen mobilizazio-jai bat.

Korrika 8. Martxoaren azken astean hasiko da Iruñean eta Aretxabaletatik apirilaren 1ean pasatuko da, goizeko 11 t'erdietan. Korrika 8an arineketan ibiliko direnak animetako kantu barri bat atarako da. Kantu horren letra atxabaltar batek egin du, **Jon Sarasuak**.

Euskara irakasteko OHOk goi zikloan erabiltzen den "Esaizu" metodoagatik Eusko Jaurlaritzaren sari inportante bat irabazi du Erein argitaletxeak. Metodo hori Eskoriatzako Irakasle Eskolako talde batek egin du, eta partaide horien artean atxabaltar bat dago: **Resu Abasolo**.

Ezin aitatu barik utzi gure herriko haratuzteak. Aurten eguraldia ez da bape ondo portatu. Nahiz eta kalean giro "hotza" egon, kaleko beste "giroa" ez zen bape hotza izan, hau dok gazteria!

Beste puntu bat ere komentatu gura nuke: dantzariak txino dantza egiten ibili ziren bitartean banda kalean gora eta behera ibili zen musika joaz. Kaleko koordinazioak kale egin zuen.

27 ZAPATUA

- Gaueko 10etan la **Ciudad de la alegría** filmea Zaraia Zineman.

- Bertso afaria Apotzako elkartearen.



- Zaraia zineman arratsaldeko 4.30etan eta zazpitan: **La ciudad de la alegría**

6 ZAPATUA

- Gaueko 10etan **Sin perdón** filmea Zaraia

Zineman.

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta - Oñati - Aretxabaleta - Arlaban - Dorletako ama (52 km).

- Futbol partidua; **U.D.A - C.D. Anaitasuna.**

- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan **Mujer blanca soltera busca....**filmea Zaraia Zineman.

28 DOMEKA

- Futbol partidua, neskak: 11etan, UDA-Dunboa.

5 EGUAKOTXA

- Uratz-alde elkartearen **BEINKEK** antolatutako kantu afaria.

7 DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **To-logorri.**



ARETXAZOKA

Lana

- Neska bat gertu etxeke lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 (Maika).

- Zure etxetik lan eginez dirua irabazi gura baduzu, bidali sobre bat eta seilu bat helbide honetara: 161 postakutxa.

Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- Larunbat goizetan ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

Salerosketak

- Garaje bat salgai Iparragirre kalean. Tfnoa: 79 20 48.

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

- Pisu bat erosi gura nuke Atxabaltan. Tfnoa: 79 17 04.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT



**GARAJE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4

Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
industrialdea
ARETXABALETA

Tnoa: 77 07 94
79 91 84


ITURGINTZA



Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte kalea, 1 - Tfnoa. 77 13 79
ARETXABALETA



Mitarte 21, behea
Tfnoa. 79 79 79
ARETXABALETA



**IZOTZ
TABERNA**

MITARTE KALEA
☎ 79 73 65


Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jaketxea!



Tfnoa: 71 41 21



**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S. A**
Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66



**IMANOL ARRAZOLA
KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55



Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
☎ 79 01 72

**Mobiliario
ARENZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa.: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

**OSKAR
HARAGITEGIA**

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66



Libretan.




Superlibretan.



(*) Zure gaur eguneko libreta eroso, sinplea eta argia da. Baina, nolakoak dira zure interesak...? Superlibreta, ordea, eroso, sinplea eta argia da. Eta bere interes-mota bikaina da. %7raino U.T.B. Aurreneko 100.000 ptak. %0,10ean. Hori baino argiagorik! Gastu eta komisiarik gabe. Besterik gabe. Ez galdu diru gehiago zure gaur eguneko libretarekin. Zatoz Superlibretaren bila! Jadanik 100.000 familiatik gora egin dute aldaketa!

Eta lehen 20.000 irekierentzat lausugailu
Elektriko bat oparitzat.
Informa zaitetz 900 555 900 zenbakian
astelehenetik ostirala bitartean, 8etatik 17etara



Egumeroko gutxienezko saltoa
100.000 pta.tik aurrera izanik,
lehen 100.000 ptak. %10ean.
U.T.B.ko adibideak:
250.000 pta.rako %4,33.
500.000 pta.rako %5,74.
1.000.000 de pta.rako %6,45.
5.000.000 de pta.rako %7,01.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA